

2015eko UZTAILAREN 20ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua Herriko Etxean bildu da, Vincent BRU jauna mahaiburu zelarik, 2015eko uztailaren 20an, astelehenarekin, 20:00etan.

Hor zirenak: Vincent Bru jaun auzapeza, Bernadette Jougoux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, auzapezordeak; Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othateguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin jauna, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorria jakinarazi dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty kontseilari anderea.

Prokurazioa: Argitxu Hiriart-Urruty andereak Nathalie Aïçaguerre andereari.

1 - Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Argitxu Hirigoyen anderea **aho batez** bilkurako idazkari izendatua izan da.

2 – Azken bilkurako agiriaren onartzea.

Jaun auzapezak Kontseiluko kideei galdetu die oharrik ba ote zuten egiteko 2015eko ekainaren 1eko bilkurako agiriari buruz. Oharrik ez denez egin, azken bilkurako agiria aho batez onartu da.

Bilkurako gaien zerrendari lotu aitzin, jaun auzapezak azpimarratu nahi izan du 29 pertsonatik 28 hor zirela, eta haien artean, gehiengoa osorik zela, hori, uztailean iragan den Herriko Kontseiluentzat.

3 – Haurtzaindegia - patioa haurren errezibitzeko gela bilakatuko da: enpresen hautaketa.

Eliane Aizpuru auzapezorde andereak proiektua aurkeztu du: 2015eko bigarren zatian, herriko haurtzaindegiko patioan obrak eginen dira haurrak errezibitzeko gela baten egiteko. Horren kariatara, 2015eko maiatzaren 22an kontsulta bat abian ezarri da, prozedura egokituaren arabera merkatuaren bidez. Zerbitzuak 6 kontsulta multzotan banatuak dira, hala nola, 57.000 € (BEZa gabe) orotara, guti gora behera.

Gutun-azalak ireki dira 2015eko ekainaren 22an, astelehenarekin. 2. multzoa ez zen bali, beraz beste kontsulta bat abian ezarri da.

Eskaintza Publiko Batzordea bildu da enpresen hautatzeko, obralariak eskaintzak ikertu ondoan.

Atxikiak izan diren enpresak hauek dira:

Multzoa:	Enpresa	Estimatzea (BEZa gabe)	Eskaintza (BEZa gabe)
1 – Obra larria	Bonloc construction	16.000 €	8.550,55 €
2 – Metalezko teilatu egitura	DL Pyrénées	14.000 €	14.446 €
3 – Aluminiozko zurgin-lanak	Sarl TTF	11.000 €	8.690,52 €
4 - Soailua-isolamendua	Berhondo	2.000 €	1.518,37 €
5 - Tindua	Hargain	6.000 €	4.628,01 €
6 - Elektrizitatea	Obry	8.000 €	5.335,74 €
Orotara		57.000 €	43.169,19 €

Jaun auzapezak jakinarazi du, oro har, estimatu zena ez dela gaintitu. Obra handiak dira, eta Annie Hernandorena andereak jadanik galdegina zuen horien egitea, bereziki patioaren estaltzea, leku horren erabiltzeko gisan aro txarra delarik, eta haurren errezibitzeko gelaren handitzeko.

Peio Etchelecu jaunak galdegin du obralaritzaren ordainketa nolakoa izanen zen: zenbatekoa dena barne ala merkatuaren heineko ehunekoaren arabera (BEZa gabe).

Christian Deveze jaunak erantzun du ordainketa merkatuaren heineko ehunekoaren arabera (BEZa gabe) kalkulatu delako.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio jaun auzapeza baimentzea tratua izenpetzeko obra horientzat atxikiak izan diren enpresekin.

Aho batez onartua.

4 – Drainatze lanak: obralaritza kontratuaren gehigarria eta diru-laguntza eskaera.

Christian Deveze jaun auzapezordeak oroitarazi du obralaritza kontratu bat izenpetu zela 2014an HEArekin, drainatze lanendako, tasa franko apalarekin: %3,95.

Iaz bozkatu obra guzietan, gelditzen da euri-uren kudeatzeko obren zati bat egiteko, Paskaleku bidean. 2014ko negoziazioetan oinarrituz, HEAri galdegin zaio gehigarri baten bidez eta %3,95eko tasa berriz tratuan ezarri gabe, 2015eko programan tasa interesgarri horren ukaitea.

2015eko programaren bi obra nagusiak drainatze batzordean eztabaidatuak izan dira: drainatze sarearen luzatzea eta berritzea Camp de César bidean (262.727,24 € BEZa gabe), eta termetako zubia (84.746 € BEZa gabe) merkatu horretan sartuko dira. Bi obra horien eta Paskaleku bideko 2014ko obraren arteko diferentziak HEAren ordainsariak erregularizatuko ditu (6.799,22 € BEZa gabe).

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

5 – Eskola garraioak: ordezkariaren hautatzea.

Jaun auzapezak oroitarazten du Departamenduko Kontseiluak (1. mailako agintari antolatzailea) duela eskola garraioen eskumena eta Herriko Etxea honen ordezkaria dela.

Departamenduko Kontseiluak eskuduntza uzten du nahi duten herriko etxeei (2. mailako agintari antolatzailea).

Hitzarmena 2014/2015eko ikasturte bukaeran finituko da, eta Departamenduak galdeginik, Herriko Etxeak berretsi du eskuduntza horren segitzeko nahia 2015eko sartzean.

2. mailako agintari antolatzaileari eman zerbitzuak bi zirkuitutan banatuak dira: alde batetik, zuzenki ustiatua den zirkuitua (herriko autobusa, honen Departamenduak diruz lagundurik), eta bestetik, konpainia pribatu bat, garraio publikorako merkatua duena.

Bigarren zirkuitu horrentzat, prozedura egokituaren arabera merkatu bat abiatu da. Harremanetan sartu 4 enpresatarik, 2 gutun heldu dira Herriko Etxera

- ATCRB TRANSDEV: 57.095,13 € BEZa gabe
- MIRAL autobusak: 67.490 € BEZa gabe

Eskaintzak ikertu ondoan, Departamenduak jakinarazi du esleitze tasak handiegiak zirela, eta proposamen berria galdegin du bi enpresa horiei, haien eskaintzatik kenduz ibilgailuaren amortizazioaren parte bat, autobus horiek beste eskola garraio batzuentzat ere erabiltzen baitira.

ATCRBk bere hastapeneko eskaintza atxiki du, eta MIRAL autobusek 50.490 €-tara jautsi dute. 2015eko uztailaren 17an, Departamenduko Kontseiluak MIRAL autobus enpresaren eskaintza onartu du, e-mailez. Jaun auzapezak zehaztu du ez duela esku hartu.

Merkatu prozedura hori bukatzean, Herriko Kontseiluari galdegin zaio jaun auzapezari baimena ematea eskumen ordezkaritza hitzarmena eta merkatua izenpetzeko, atxiki den enpresarekin.

Aho batez onartua.

6 – Karabana gunea: lursailen erostea.

Jaun auzapezak oroitarazi du Kanboko herriak luzaz xerkatu duela karabanak errezibitzeko lursail bat, turista eta kurista franko karabanaz etortzen baitira. René ZAVALETAK usu ateratzen zuen gaia. Lursaila eraikigarria izan behar da, eta Kanbon lursail eraikigarriak izigarri kario dira. Bestalde, herrian ez deno karabana gunerik, ezin da debekatu karabanak leku publikoetan instalatzea. Batzuk Errobi bazterrean instalatzen dira, termen parean: termena den lursaila da, eta zenbaitek haien hondakinak zuzenki Errobira botatzen dituzte. Gainera, ura urririk hartzen dute aurkitzen duten tokian, ez dute egonaldi zerga ordaintzen, ez dugulako galdegiteko eskubiderik, eta ur gris eta beltzak ahal duten lekuan isurtzen dituzte, eta batzuetan naturaren erdian. Egoera hori ez da onargarria.

Herriko Etxeak karabana gunea bat ukanen duelarik, jaun auzapezak polizia erabaki bat hartzen ahalko du karabanak leku publikoetan uztea debekatuz. Gaur egun, Herriko Etxeak barrak ezarri behar ditu karabanak ez daitezen frontoiko aparkalekuan edo beste leku publiko batean ezar.

Bestalde, ekonomia turistiko garrantzitsua denez, karabana gunea bat egitea komeni da. Arazoa lursaila hautatzean datza. Herriko Etxeak pentsatzen zuen aterabidea atzemana zuela, termek proposatu baitzuten lursail bat uztea, kasik urririk, termen parean, **chemin de la halte**. Biak litezke irabazle: Kanboko Herriko Etxeak lursail merke bat lukeelako, eta termek aparkatzeko leku batzuk gehiago litzukeelako, bertan instalatuko liratekeen kuristak oinez joanen litzukeelako termetara.

Jaun auzapezak oroitarazi du, aurren, termek 14.2000 kurista behar litzukeela errezibitu eta gainera ondoko 5, berdin 10 urteetan, 17.000tik 18.000ora kurista gehiago litzatekeela, zuzendariaren arabera.

Dosierra Estatuaren zerbitzuei igorri da, baina zorigaitzez, 2014ko uztailaren 4ko uholdearen ondorioz, eta prekauzio araua aplikatzeko, prefetak ez du bere baimena eman.

Beraz Herriko Etxeak Errobi Herri Elkargoari galdegin dio:
Lehenik, Herriko Etxeak Mulienia lursaila (UY gunean diren bi lursailen ondoan kokatua) UY gune gisa sailkarazi du. Apezpikutegiaren lursail hori Herri Elkargoari saldu da.

Celhaya elkarteak lursail horren zati bat erosi du, 4.000 bat m², hemendik bizpahiru urtera ESAT Celhaya guzia bertan instalatzeko, dena leku bakar batean elkartzeko gisan, herri barnean.

Herriko Etxea Herri Elkargoarekin harremanetan sartu da gelditzen zen lursailaren zati baten erosteko, 2.929 m²-koa (85 €/m² –BEZa gabe–, hau da 248.965 € BEZa gabe), karabana gunea egiteko.

Lursail horrek abantaila zenbait dauzka: herri barnetik hurbil da, Michel Labèguerie kirol-zelaitik hurbil, termetara joan daiteke ekialdeko saihesbidetik, eraikigarria den lursaila baino merkeago den lursaila erositako litzateke, aktibitate ekonomikoari zuzendu lursaila delako.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du karabana gunea antolatzekeo kostua aitzinkontuan ezarria izan denez.

Jaun auzapezak erantzun dio kostua jadanik ikertua izan zela, termena zen lursaillean finkatzeko. Parisera joan delarik, jaun auzapeza karabana gunea eraikitzen dituzten bi enpresarekin bildu da eta hauek Kanboko gunea beren gain hartzea proposatu diote, baina ez da deus erabaki lehenik gunea eraiki behar baita. Bi sistemen alde on eta txarrak ikertu beharko dira: gunea beste batek kudeatzen baldin badu irabazi gutiago egingen da; kuristei lehentasunezko prezioak proposatzeko xedea bada, gaualdia oro har, 8 eta 11 €-ren artean delarik. Balioztatze hori egin da eta berrikusi beharko da lursail horren arabera. Departamenduko Kontseiluarekin garaian izenpetu lurralde-kontratuaren barne da. Herriko Etxeak Departamenduko Kontseiluaren partez %20-25eko diru laguntza ukanen du horretarako.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du ea lursailaren erostea 2015eko aitzinkontuan aurreikusia zen.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio, hastapenean ez baitzen lursailik erosterik, termen auzoan aurreikusia zen proiekturako.

Christian Deveze jaunak gehitu du urte bukaeran ikusiko zela hori, erabaki aldatzaileen arabera, edo bestela 2016 urte hastapen-hastapenean.

Nathalie Aicaguerre andereak galdegin du karabana gunea noiz prest izanen den.

Jaun auzapezak erantzun dio 2016ko maiatza edo ekainetik goiti irekitzea nahi lukeela.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du karabana gunea ireki ondoan, Herriko Etxearen erabaki bat egingen ote den karabana horien debekatzeko lursail pribatuetan.

Jaun auzapezak erantzun dio ezin duela deus egin lursail pribatuetan. Jabeari dagokio bere lursailaren zerratzea.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

7 – PLU-HTParen 5. aldaketa

Frédéric Bardin jaun auzapezordeak 5. aldaketa hori aurkeztu du, zeinak 6 puntu baititu:

1 – Choumienia – Nafarroaren etorbidea

2AUy gune bat 1AUy gune bilakatzea, aktibitate ekonomikoa egiteko den gunen baten ukaiteko, hori 2 hektarearen gainean (obralaria: Errobi Herri Elkargoa).

2- Nafarroaren etorbidea lursaila

2AU gunea, gunen eraikigarri bilakatzea da 89 bizitegi eraikitzeke. Horietan, bizitegi sozialak ere egingen dira (alokatzeko eta erosteko).

3- Paskalekuko bidea

HTParen UEb gunea, gorago diren lursailetakoko euri-urak berreskuratzeko gisan eta behean diren lotizamenduak babesteko.

4 – Izarrak eraikinen gainean

Badira eraikin batzuk arkitektura aldetik zaintzekoak eta errespetatzekoak direnak, eta erabileraz aldatzekoak direnak: izar bat ezarriko da horien gainean, zerrendatzeko gisan (Hirigintza Kodeko L 123-1-5 artikulua).

5 - Araudia

Araudia zehaztu behar da, bereziki eraikinak A gunera egokitzeko, eta araudia ALUR Legeari egokitzeko.

6- San Laurendi elizaren inguruko babes perimetroaren aldaketa

San Laurendi eliza monumentu historikoetan sailkatua da. Beraz, Frantziako Eraikinen arkitektoarengana jo behar da 500 metrotan kokatua den proiektu ororendako. Perimetro egokiago baten finkatzea proposatu da, eliza hobekiago ikusten delako Behereko Kanbotik 500 metrotara diren beste leku batzuetatik baino.

Jaun auzapezak informazio gehiago eman du, bereziki Herriko Etxeak egingen duen aldaketa horri buruz. Edukia ez da oraino finkatua, aldakorra da.

Eliza monumentu historikoetan sailkatua da mementoan, baina sailkatua bada, erabakia ez da argitara eman. Herriko Etxea sailkatzeari buruzko ministerio erabakiaren zain da. Posible da monumentu historikoen inguruko 500 metroko perimetroa egokitzea, HTPan aldaketa bat egiten delarik.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du zer interes den 2AU gunen bat 1AU gunen gisa sailkatzea.

Frédéric Bardin jaunak zehaztu du lursail hori funts erreserban zela eta jabeak gunen eraikigarri bilakatzea galdegin duela, Herriko Etxearen interesa delarik 89 bizitegi eraikitzea.

Jaun auzapezak gehitu du Herriko Etxeak lursail bat 2AU edo 2AUy gunen sailkatua duen ber, erabakia hartzen duela noizbait lursail hori eraikigarria izan dadin, eta beraz 1AU gunen bilakatuko dela, eta obrak egin ondoan, UC gunen.

Salagoity – Colbert kontsorteeke nahi izan dute operazio hori hemendik bizpahiru urtera egin, beraz lehenago, 2AU gunen 1AU gunen bilakatu behar da, baina Christian Devezek behin eta berriz galdeginik, Herriko Etxeak haien galdea kontuan hartu du baldintza batekin: garapen ekonomikoa

ere egin dadin. Marieniaren behean kontsorte horiek berek bazuten lursail bat Herriko Etxeak 2AUy sailkatu zuena garapen ekonomikoarentzat lursail zabalak ukaiteko gisan. Kanbon, osasuna, termak, Sobamat enpresa eta Renaudin laborategiei esker enplegu franko bada, baina gure ustez aktibitatea dibertsifikatu behar da etorkizunean, eta enpleguak sortuko dituzten enpresa berriak erakarri barnealdera.

Horretarako, Herriko Etxeak lursailak erreserbatu behar lituzke. Bada bat Hazparneko bidean, gaur egun jabeak berak baliatzen duena, eta pentsatu genuen baita ere 6 hektarea erreserbatzea Marieniaren behean dagoen lursailean, aktibitate ekonomikoarentzat. Christian Deveze jaunak beti erran du urbanizatze operazio hori, Itsasura buruz joanez ezkerrean, behar zela egin 2 hektarea lursailen saltzarekin batean Herri Elkargoari ondoko 6 urteetan, lehenik Kanbon ekonomia finkatzeko gisan.

Herriko Etxeak kontratu morala proposatu du beraz Salagoity-Colbert kontsorteei, urbanizazioa onartuz, eta ez beti gogotik, 1AUra pasako litekeen 2AU zatian, hori, Salagoity-Colbert kontsorteek 2 hektarea gutienez saltzen badituzte Herri Elkargoari prezio interesgarrian.

Bestalde, Frédéric Bardin enpresaren osatzeko, 2AU edo 1AU gune guzietan bezala, bortxaz bizitegi sozialak izanen dira (18). Beharko da finkatu alokatzeko bizitegi sozial eta erosteko bizitegi sozialen kopurua.

Nathalie Aïcaguerre andreak ohartarazi du 70 m²-ko 27 T3 etxe izanen direla, 80 m²-ko 24 T4, 90 m²-ko 8 T5, karioegi gazteentzat eta ez hain gazteentzat ere bai.

Jaun auzapezak erantzun dio ez dela Herriko Etxearen lotizamendua, baina pribatua, prezio nahiko mugatuekin, eta erosteko bi lansari beharko direla, bistan da, eta bezeroak ez direla bortxaz bizi aktiboan sartzen diren gazteak izanen.

Philippe Bacardatz jaunak zehaztu du ALUR Legeak zehazten duela herrien zabaltzearen eta batzearen kontra borrokatzen dela, eta beraz 1AU guneen urbanizazioaren kontra herri barnean. Kasu honetan Herriko Etxeak alderantzizkoa egin du: kanpo aldean den lursail baten izendapena aldatu du, berdeguneak zituen Kanboko sartzeari (Itsasutik) desitxuratu du, lursail pribatu batendako. Edozein gisaz Herri Elkargoari salduko den lursaila 1AUy lursail baten merkatuko prezioan salduko da, ez gutiago.

Jaun auzapezak erantzun du lursail hori 40 € bainogutiagotan salduko dela. Obrak egin ondoan, 65 €-tan izanen da guti gora behera.

Operazio hori denen abantailetan izanen da, 18 bizitegi sozial gehiago egiten ahalko dira Kanbon, eta partikularki, 2 hektarea izanen dira garapen ekonomikoarentzat. Etxe anitz izanen da orotara eta m²-ka kontsumitze guti egingen du, lur okupatze koefizientea ez da arras bete, 0,20koa da, UC gunean 0,30koa delarik. Bestalde, oroitarazi nahi izan du, Hirigintza Batzordean ikusi den bezala, lursail zerrenda zabal bat (hamar bat metro) kolore desberdinetako landareekin izanen dela. AGIP-PADDen den kezka da, eta gauza bera beharko da inposatu beste aldean.

Jaun auzapezak baieztatu du Kanbon 2AU eta 1AU lursail batzuk gehiago egonen direla, baina zorigaitzez, ez direla epe laburrean eskuragarri izanen.

Pantxo Michelena jaunak ohartarazi du HTParen berrikustea laster hasiko dela, bi urte iraunen dituela gutienez, eta beraz Kanboko eraikuntzari buruz puntua egiteko parada izanen dela. Ez du uste presazkoa denik, 1AU gisa sailkatuak diren hainbat lursail badirelako jadanik, ez direnak oraino eraikiak gaur egun, beraz ez du ikusten zergatik 2AU lursailak eraikigarri behar diren bilakatu 1AU direnak ez direlarik hala.

Jaun auzapezak erantzun dio jabeek dituztela erabakiak hartzen.

Pantxo Michelena jaunak gehitu du herriko hirigintzari buruzko koherentziaz ari dela.

Jaun auzapezak zehaztu du HTParen berrikuste batek 2 urte eta erdi irauten dituela gutienez, ingurumenari buruzko Grenelle-aren eraginarekin, biziki pisu dela. Herriko Etxearentzat garrantzitsua zen eskaera zehatz bati erantzutea eta bizitegi sozialak fiteago eraikitzea. Operazio hori 2017 eta 2018an egingen da, HTParen berrikusketa orokorra bozkatuko delarik.

Pantxo Michelena jaunak gehitu du gaur egun lursail horren zati bat Natura 2000 gisa sailkatua dela. Galdegin du arauzko ikerketa bat eginga izan ote den eraginei buruz, eraikigarri bilakarazi aitzin.

Jaun auzapezak zehatza izan nahi du gai horri begira. Lursail hori ez da segidan eraikigarria izanen. Bilkura horretan ikerketaren abiatzea bozkatu behar du, emaitzen beha egon beharko da. Zehaztu du ez dela Natura 2000 gunerik 2AU lursailean, baina halako gune bat badela 2AUy lursailean. Errobiko Ibarraren Sindikatuak ikerketa bat egingen du. Hori guzia dosierraren instrukzioaren parte da.

Nathalie Aïcaguerre andreak galdegin du HTP baten berrikusketak zenbat denbora irauten duen.

Jaun auzapezak erantzun dio aldaketa batek 3 hilabetetik 7-8 hilabetera iraun dezakeela.

Frédéric Bardin jaunak zehaztu du aldaketa bukatuko dela 2016ko maiatza irian, HTParen berrikusketa 2017 bukaeran edo 2018 hastapenean bukatuko delarik.

Pantxo Michelenak seinatu du lursail horiek laborantzarako erabiltzen direla, eta bereziki laborari batzuek laborantza-alokantza izenpetu dutela, horien artean burasoen segida hartzen duen laborari gazte batek. Honen proiektua Ezpeletako biperraren egitea da baita ere haragitarako behi hazkuntza, ondotik bere ekoizpenak salmenta zuzenaren bidez saltzeko. Laborantza aktibitate hori guzia arazoa da. Kanboko Herriko Etxeak zer laguntza ematen du laborantzari, laborari gazteei, jakinez laborari guti dela? Herriko Etxeak hirigintzari ematen ote dio lehentasuna? Nahiago du eraikuntza laborantza baino? Laborantza Batzordean aipatu bezala, kanboar frankok lekuko ekoizpenak nahi dituzte erosi, ahalaz biologikoak, baina gaur egun ez da lekuko salmentarik. Horren xedea duten laborariei aukera eman beharko litzateke, edo bultzatu behar lirateke horretan hasteko.

Gainera, lotizamendu berri bat eraikiko da, kasik auzo berria, hau ere herri barnetik kanpo: 89 bizitegi, hau da, 250 pertsona gutienez, eta arras ontsa dakigu 2/3ak beste nonbaitetik etorriko direla, ezta ere departamendutik, baina Frantzia guzitik. Ez gara kontra, baina Kanboko biztanleria handituko da leku guzietatik etorri jendearekin, lekuko beharrei ihardetsi gabe. 1/3 departamendukoa izanen da, 1/6 Euskal Herrikoa, eta beharbada 1/50 Kanboko.

Ikerketa bulegoarentzat den baldintza agiria egin delarik HTPari buruz, ados ginen handitzea mugatu behar genuela; alta hemendik urte batera edo bira herriko biztanleria 250etik 300 pertsonara arte handituko da. Alta ez da bizitegirik falta Kanbon. Izan ere, Leboncoin.fr webgunea gaur begiratu ondoan, badira 157 bizitegi, etxe edo apartamentu salgai Kanbon. Zergatik beste batzuk eraiki? Kanboko sartzea ere aipatu du, Itsasutik heltzean: zer gauza ederra landaretza eder hori ikustea, laborariak natura zaintzen dutelako eta gainaldean Marienia ikustea. Hor Herriko Etxeak lotizamendu bat eraikiko du, eta beste bat izanen da ondoko urteetan, laborantzaren eta Kanboren irudiaren kaltetan.

Frédéric Bardin jaunak berriz aipatu du gai bera, hau da, Kanbora bizitzera etortzen diren kanpotarrak eta azpimarratu du mahaiaren inguruan, ez direla Kanbon sortu pertsonak baizik, eta beharrik Kanbon errezibituak izan direla, hor izateko gisan eta herriko bizian parte hartzeko.

Jaun auzapezak oroitarazi du Itsasuko laborari gaztearen instalazioari dagokionez, zeinaren burasoak Kanbokoak baitira, jadanik eztabaida ukana zutela lursaila 2AU gisa sailkatzeko erabakia hartu zelarik. Herriko Kontseiluak, Estatuaren baimenarekin, erabaki duelarik lursail horiek 2AU edo 2AUy gisa sailkatzea, denek bazekiten lursail horiek ez zirela laborantzarako izanen, baita laborariak berak ere. Kanboko hiri garapen nagusia auzo hori da.

Segur, laborantza zaindu behar da, baina herri barnetik hurbil diren lursailak, zeinetan eskola garraioak pasatzen diren, etorkizunean haziko diren auzoak dira.

Gai nagusira berriz jiteko, berrikuste bat izanen da baina Herriko Etxeak ez du berriz gauza bera egin nahi etorkizunean. Kanbon ez da gehiago oste handiko hirigintza programarik eginen, kanboarrek UC gune mugan hirigintza eskaera bat egiten badute salbu, kasuz kasu aztertuko da. Alabaina, gaur egun, ondoko hamar urteentzat erreserba aski bada.

Haatik, nola esplikatu lur-jabe bati bere lursaila 2AU gisa sailkatua egonen dela Herriko Kontseiluak laborantza-lur bat 2AU gisa sailkatzea erabakitzen duenean. Jabeak, arrazoiekin, ulertuko du Herriko Etxeak erabaki duela egun batez lur horiek eraikigarriak izanen direla.

Proiektu horrek arkitektura aldetik homogeneousotasuna du, etxe guziak desberdinak izanik, estilo berekoak direlako. Ez da bizitegi eraikinik izanen, bizitegi sozialak salbu. Aipatu den hamar bat metroko zerrenda izanen da, bidearekin moztuko duena, baina garrantzitsuena hau da:

- Kanbon bizitegi sozial gehiago izanen da,
- Herri Elkargoak eta Kanboko Herriko Etxeak parada ukanen dute aktibitate ekonomikoa garatzeko eta dibertsifikatzeko,
- laborantzako parteari dagokionez, lekuaren parte handi bat (pentzea, oihana) laborantza gune geldituko da eta ez da eraikigarria izanen.

Philippe Bacardatz jaunak seinalatu du 2AUy guneari dagokionez, 2 hektarea baizik ez liratekeela 1AUy gune bilakatuko, baina Herriko Etxeak egiten duena segituz, 2AUy gunean den beste guzia, laborantza gunean ez dena 2AUy gune gisa sailkatuak direlako, noizbait 1AUy gisa sailkatuko dira.

Jaun auzapezak seinalatu du 2020 arte auzapez dela. Gaur egun ez da proiektu berezirik. Noizbait, zorionez, herrian 50 enplegu berri sortuko dituen enpresa bat balitz, Herriko Etxeak eginahala eginen luke haren finkatzeko.

Biztanleria denetan emendatzen da, eta goratze hori nahitaez kudeatu behar da. Ipar Euskal Herri arteko garapen ekonomikoari pentsatu behar da. Horretarako lursailak aurkitu behar dira. Lursail hori egokia da garapen ekonomiko batentzat, departamenduko errepideko sarbideetik hurbil-hurbil baita, eta kamioiek Kanbo saihestuko dute.

Philippe Bacardatz jaunak gehitu du ez zuela ongi ulertzen interes kolektiboa interes pribatuari begira, 2AU gunea 1AU gune bilakatu den lursailean. Esplikatu zaio bizitegi sozialak eraikitzeke dela. Gaur egun Kanbon badira Herriko Etxearenak diren lurak. Herriko Etxeak bizitegiak egin nahi baditu, zergatik ez Usimendia lursaila bezalako batean egin bizitegi horiek?

Jaun auzapezak erantzun du gehiengoan den taldeari galdegin diola gogoetatzeko lursail horrekin zer egin.

Philippe Bacardatz jaunak kezka ditu Kanboko biztanleriaren emendioari begira. Herriko Etxeak dio proiektu pribatu bati begira, elkargoak ez duela deus egiten ahal, pribatuek dutelako bizitegiak egiten dituzten promotoreei saltzen. Kasu honetan, gehiengoak Herriko Etxeko agiri baten bidez du lursaila aldatuko, zeinak Kanboko biztanleria emendatuko baitu eta alor pribatuko ondasun batekin irabaziak eginen.

Jaun auzapezak baieztatu du lursail hori 2AU gisa sailkatuz, Herriko Etxeak erakutsi duela noizbait nahi lukeela lursail hori urbanizatu. Herriko Etxeak ez du laborantza-lur hori lur eraikigarri bilakatzen. Lursail hori ez da laborantzarako sailkatua baina eraikigarri izan daitekeen lursaila da. Horregatik du Herriko Kontseiluak erabaki bat hartu behar.

Pantxo Michelena jaunak galdegin du lursail hori 2AU-tik laborantzarako lursail bilaka ote daitekeen.

Jaun auzapezak erantzun dio laborantzarako sailka lezakeela, baina auzibide litekeela. Zehaztu du Kanbo ez dela Behereko Kanbon garatuko, han laborantzarako lurak eta urez estaliak izan daitezkeenak badirelako; ez eta ere Gailurretako bidean edo Paskaleku auzoan. Urbanizatu litekeen azken gunea hori da, ez da beste aukerarik.

Patrice Dor jaunak jakinarazi du, pertsonalki proiektu hori poxelu duela eta puntu horrentzat ez duela bozkatuko. Ikusten duen alde on bakarra ordain ekonomikoa da, eta Kontseiluan duen funtzioari begira, garrantzitsua iduritzen zaiola erreserba ekonomiko bat ukaitea. Halere, auzo horretan anitz urbanizatu da jadanik, eta kezka ditu auzo horretako bizitegien dentsitateari begira, baita ere egonen diren zerbitzu eta beharrei begira eskolari dagokionez edo haurren zaintzeari dagokionez. Zaila da bilkura horretan bilduak direnen gisan, bere etxea eraikitzeke parada ukan ondoan, besteei horren errefusatzeari. Baina nahiago luke proiektu hori egiten ez balitz.

Jaun auzapezak eskertu du haren ikuspuntua eta objektibotasuna erakutsirik, familiarekin auzo horretan eraiki izan ahal dutelako.

Vincent Goytino jauna Patrice Dor jaunaren hitzartzearekin ados da eta hark ere ez du bozkatuko.

Pascale Lespade andereak galdegin du ea aldaketa guzira batean bozkatu behar den ala puntu puntu, berak ez duelako 2. puntua bozkatu nahi.

Jaun auzapezak erantzun dio aldaketa osoa batean bozkatuko dela.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du eraikinak zerrendatuak izan ote diren izarren plantan ezartzeko (4. puntua).

Jaun auzapezak oroitarazi du intentzio bat dela bozkatuko gaur eta ez proiektua bera, hau ondoko asteetan zehaztuko delako. Kanboko Herriko Etxeak baditu eraikin batzuk babes berezia dutenak HTPan izar batez markatuak direnak. Herri barnea eta Behereko Kanbo jadanik zerrendatuak dira; laborantzarako eraikin zenbait zerrendatzekoak dira oraindik, hala nola Magdalena.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du

Kontra bozkatu dutenak: Pantxo Michelena jauna, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïcaguerre anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea (prokurazioaren bidez), 1. eta 2. puntuei begira

Pascale Lespade andereak, Patrice Dor jaunak, Vincent Goytino jaunak, Pascal Bourguet jaunak, Argitxu Hirigoyen andereak eta Peio Etchelecu jaunak ez dute bozkatu 2. puntuari begira.

Gehiengoaren bidez bozkatua.

8 – AVAP-AOBG Lekuko Batzordea: kideen izendatzea

Frédéric Bardin jaun auzapezordeak AOBGaren Lekuko Batzordeak egin aldaketa aurkeztu du, bereziki kideen izendatzea.

2014ko irailaren 29ko Herriko Kontseiluko erabakiaren arabera, Herriko Kontseiluak AOBGaren Lekuko Batzordearen kideak izendatu ditu.

Erabakia aldatzea komeni da auzapeza batzordeko kide izendatzeko. Honetan 15 kide badira gehienik eta 12 gutienik:

- lurralde elkargoko 5-8 ordezkari,
- 3 administrazio ordezkari (prefeta, DRAC, DREAL),
- 4 pertsona kalifikatu, eta haietarik, 2 lekuko kultura ondarearentzat eta 2 ekonomia eta lekuko interesentzat.

Proposatu dira:

Hautetsien ordezkariak

- | | |
|-------------------|--------------------------|
| - Vincent BRU | - Jean-Noël MAGIS |
| - Frédéric BARDIN | - Bernadette JOUGLEUX |
| - Eliane AIZPURU | - Patrice DOR |
| - Peio ETCHELECU | - Argitxu HIRIART-URRUTY |

Estatuaren ordezkariak:

- Prefetarentzat: SOLABERRIETA anderea
- DREALarentzat: Séverine PUCHEU anderea
- DRACarentzat: AYMAR jauna

Pertsona kalifikatuak:

Ondarearentzat:

- Christian PERRET jauna
- Robert POULOU jauna

Lekuko ekonomia interesentzat:

- Marcel NOBLIA jauna
- Christophe PUYODEBAT jauna

Pantxo Michelena jaunak oposizioaren ordezkartzaren gaia aipatu du. Hauteskundeetan bozen ehunekoa ez da errespetatua; gehiengoaren %72arekin, ez da posible gehiengoak 7 ordezkari ukaitea eta oposizioak bakarra.

Jaun auzapezak zehaztu du frantses legeak aurreikusten duela oposizioaren ordezkartza proportzionala izan dadin batez besteko azkarrenaren sistemarekin.

Philippe Bacardatz jaunak oroitarazi du 2014ko uztailaren 21eko Herriko Kontseiluan, jaun auzapezak baimena eman zuela bi ordezkari, eta ondoko Herriko Kontseiluan ideiaz aldatu zuen.

Jaun auzapezak ez du berriz hasi nahi eztabaida oker eta interes gabekoekin.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Gehiengoaren bidez bozkatua.

Bozkatu gabe gelditu dira: Pantxo Michelena jauna, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïcaguerre anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea (prokurazioaren bidez).

9 – Bordart etorbidea eta Poupel karrikaren largatzea: erabakia inkesta publikoaren ondotik.

Jaun auzapezak oroitarazi ditu eginak izan diren obrak Bordart eta Poupel karriketan, eta Herriko Etxeak egin galdea SAUVAGE kontsorteei, hau da, 9 m²-ko zatiño bat uztea bihurgunea hobetzeko gisan. Kadastra erregularizatzeko, Hernandorena mandatari-ikerketak egileak inkesta publiko bat egin zuen joan den maiatzean. Oharrik ez zenez jaso, honek aldeko iritzia adierazi du.

Jaun auzapezak galdegin du Kontseiluari erabaki bat hartzea euro sinbolikoarentzat 9m²-ko AV 166 lur zatia erosteko Sauvage jaun-andereei, zati hori jabego publikoan sartzea eta baimena ematea dossier horri lotu administrazio formalitateak izenpetzeko.

Aho batez onartua.

10 – Tennis jokalekuaren estaltzea: diru-laguntza eskaera.

Didier Irastorza auzapezorde jaunak tennis jokalekuaren estaltzeko proiektua aurkeztu du. Aurreikusia da obrek 253.000 € (BEZa gabe) kostatuko dutela; 75.900 €-ko diru-laguntza (hala nola %30) galdegin da Departamenduko Kontseiluari lurralde kontratuaren karietara. Herriko Etxea entseatuko da aurrekontu horretan burdin hesia eta sareen berritzea sartzera, egoera txarrean baitira.

Herriko Kontseiluari proposatu da galdegitea:

- Alde batetik Estatuaren laguntza, parlamentu erreserbaren karietara,
- Bestalde, tennis ligaren diru-laguntza.

Jaun auzapezak oroitarazi du proiektu hori bere hauteskunde kanpainaren parte zela, eta leku hori estalia izanez gero, eskolaldi inguruko aktibitate berrientzat erabiltzen ahalko dela.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

11 – Eskola denboratik kanpo gelen erabiltzea: hitzarmena

Eliane Noblia andere auzapezordeak jakinarazi du Egoitzarik Gabeko Aisialdien Harrerak (EGAH) udan Errobi kolegioko jantegia erabiltzen dutela azken bi urte hauetan. Hitzarmen bat izenpetuko da jantegi horren erabilerarentzat uda honetako, Departamendua, Herriko Etxea, Errobi kolegioa eta Laguntza Sozialerako Herriko Zentroaren artean. Horri esker EGAHko gazteak Errobi kolegioko jantegian bazkaltzen ahalko dira 2015eko udan.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio auzapezari baimena ematea eskolatik kanpo eskola erabiltzeko hitzarmena izenpetzeko.

Aho batez onartua.

12 – Elektrizitate kontsumoaren azkeneko zerga (EKAZ)

Christian Deveze auzapezorde jaunak aurkeztu du EKAZ dosierra. Zerga horrek, 1990ean, ordeztu zuen elektrizitate horniduraren zerga. Zerga %8koa zen elektrizitatea hornitzeko. %8ko zerga hori (2010eko legea) 2011ko mantendu da, eta Kanboko Herriko Kontseiluak %8,12ra igan du 2012tik goiti. 2012az geroztik, Kontseiluak ez du zerga hori igo.

Gaur egun, Herriko Etxeak proposatzen du %8,50eko zerga mendrea. Pirinio Atlantikoetako 547 herriren gain, 503 herrik (%94) %8,50eko zerga hori bozkatu dute.

2014an, zerga horren produktua apaldu zen, erabiltzaileen kontsumoa apaldu zelako.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.233-4 eta L.5212-24 artikuluen arabera, EKAZa biltzeko eskuduntza duten herriek behar dute koefiziente biderkatzaile bat hautatu ondoko balioen artean: 0, 2, 4, 6, 8, 8,50.

Herriko Kontseiluari proposatu zaio zerga hori %8,12tik eta %8,50ra arte igatea.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du zerga hori urtez urte iganen ote den, ikusiz jendeak elektrizitate gutiago erabiltzen duela, hori, zerga horren produktua orekatzeko.

Christian Deveze jaunak oroitarazi du mantendua izanen den %8,12ko zerga eta %8,50ko zergaren artean eragina 8.000 €-koa izanen dela zergaren produktuaren gainean. Ez da hazkunde handiko inflazioa eta neurrigabeko produktu gehigarria izanen.

Philippe Bacardatz jaunak zehaztu du Herriko Etxeak egin lezakeen jestua litzatekeela.

Christian Deveze jaunak erantzun du denetan zorrozatasuna behar dela eta entseatu behar dela herriko produktuak mantentzea.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Bozkatu gabe gelditu dira: Pantxo Michelena jauna, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïcaguerre anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea (prokurazioaren bidez).

13 – Arnaga: atezaindegia eta zati denborako enplegu sortzea.

Jaun auzapezak jakinarazi du Chabrol anderea atezaindegitik joan denez geroz, museoko kontserbatzaileak nahi dituela postuak berriz banatu. Izan ere, orain arte pertsona bera zen atezaindegiko eta txarteldegiko langile.

Proposatua da bi funtzioak banatzea:

- Harreran: 22 oren astean, urtean zehar banatuak
- 35 orenen gain, 13 oren gelditzen dira: Herriko Etxeak teknikari laguntzaile postu baten sortzeko asmoa du zaintze lan batzuentzat (abereak bazkatu, zikinontziak hustu, komunak garbitu) eta Arnaga zaintzeko.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio iritzia ematea:

- Atezain baten postuari buruz, honek bizitegia urririk ukanen duelarik

- 2. mailako teknikari laguntzaile baten postu sortzeari buruz lanaldi partzialean (13 oren astean, urtekoturik).

Nathalie Aicaguerre andereak ohartarazi du 13 oreneko postua asteka arrunt prekarioa dela.

Jaun auzapezak gehitu du helburua dela pertsona berak bi lanpostuak ukaitea.

Nathalie Aicaguerre andereak galdegin du kandidaturarik ba ote den.

Jaun auzapezak zehaztu du postua sortu bezain laster lan eskaintza Herriko Etxeko webgunean ezarriko dela.

Nathalie Aicaguerre andereak galdegin du norbait ba ote den mementoan atezaindegian.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

14 – Langileak: lanpostu sortzea lan kontratu mugatuan.

Henri Saint Jean jaun auzapezordeak aurkeztu du 2. mailako administrazio laguntzaile postu bat sortzeko proiektua bi hilabeterendako, hau da 2015eko agorrilaren 3tik irailaren 30era, 21 oren astean.

Langile horren egitekoa: Herriko Etxeko webgunean “aferra sozialen” atalean informazioa ezarri, eta ondoko larrazkenean, France Alzheimer, Familles rurales eta ASEPTarekin iraganen diren bi bilkurak prestatu eta kudeatu.

France Alzheimerrekin bilkura urriaren 2an iraganen da. LSHZn Alzheimer laguntzaileak errezibituko dira ondotik.

Familles rurales eta ASEPTekin eginen den bilkuraren bidez erorketei buruzko tailerrak egiten ahalko dira, baita memoriari buruzkoak eta ongi zahartzeari buruzkoak.

Jaun auzapezak azpimarratu du laguntzaileak laguntzea bere programaren parte zela.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

15 – Arnagako gaualdiak

Bernadette Jougleux andere auzapezordeak jakinarazi du Herriko Etxeak, uda honetan, Arnagan, “Arnagako udaldia” antolatzen duela.

- 2015eko uztailaren 22an (asteazkena) eta 23an (osteguna): antzerki gaualdia
- 2015eko agorrilaren 14an (ostirala): antzerki gaualdia
- 2015eko agorrilaren 15ean (larunbata): italiar gaualdia

Gaualdi horiek pagarazteko gisan, Herriko Etxeak irabazi erakunde bat sortu behar du.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio bere iritzia ematea gualdi horien prezioari buruz:

- 2015eko uztailaren 22 eta 23an iraganen den *Chantecler* antzerkiarentzat: 10 € sartzea (urririk 12 urtez pekoentzat)
- Arnagako udaldiarentzat, 2015eko agorrilaren 14 eta 15ean:
 - . gualdi bakarra: 12 €
 - . bi gualdi: 20 €
 - . abantailazko prezioak: 9 € (12-18 urte artekoak, langabetuak, elbarrituak, ikasleak)
 - . urririk 12 urtez pekoentzat.

Pantxo Michelena jaunak azpimarratu du *Chantecler* antzerkia emanen duen taldea, Frantzia zehar, pribilegiozko lekuetan ibiltzen zela, eta pieza hori urririk ematen zutela. Molièreren gisan ari dira: talde ibiltaria da, publikoaren aitzinean ari da, eta antzerkiaren bukaeran jendeak nahi duena ematen du. Biziki molde ederra da hori, eta Kultura Batzordean seinalatu zen Herriko Etxea ez zela molde horrekin ados eta sartzea pagarazi nahi zuela. Pena da, antzerkilariak hori egiten baitute kultura herrikoa izan dadin, denentzat eskuragarri, karrikako antzerkietan egiten den bezala, eta, gehien bat, konpainiari zerbait kentzen da eta prezio bat inposatzen zaio.

Jaun auzapezak erantzun du ikusgarriak ez duela hainbatik balio. Usaian talde horiek babesleak dituzte eta horrela pribilegiozko lekuetan artzen ahal dira. Ez dute sartzea pagarazten konpainia berria delako, ez biziki ezagutua. Gehienak Cours Florent eskolatik heldu dira, ez dute osperik. Haien burua ezagutarazi nahi dute eta erabaki dute aurten, berdin denbora gehiagoz, horrela aritzea. Proposamen bat egin zaie. Gure ustez urririk izatea ez da gauza hobereana. *Chantecler* antzerkiak gutienez bi oren irauten du, beraz sartzea urririk balitz, jendea sar eta atera liteke, karrikako antzerkian bezala hain zuzen, eta Arnagan, gauaz, dena entzuten den lekuan, ezin jasana liteke. 10 €, Pariseko antzerkien prezioari konparatuz, kultura herrikoa da, baina horren bidez lekuari kasu eginen da, fresetan parte hartuko da (herriaren eta konpainiaren fresak, gastu ordaintzeak) eta jendea errespetatuko da. Gainera, kultura gertakari bat sortzen denean eta urririk denean, erran nahi du ez dela kalitatezkoa. Jendeak kultura politika eginahalean parte hartu beha du. Antzerkilari gazteak pagatuak izan behar dira.

Pantxo Michelena jaunak zehaztu du ohar hori bat etortzen zela konpainiaren nahiarekin. Beharbada gehiago irabaziko lukete jendeak nahi duena ematen balu ez eta sartzea 10 € pagaraziz.

Jaun auzapezak erantzun dio konpainia gazte horrek bere burua ezagutarazi nahi duela eta ez zaiola zuzena iduritzen gazte horiek publikoaren borondate onaren menpe izatea.

Nathalie Aicaguerre andereak galdegin du sartzetan egin diru guzia emanen ote zaienez.

Jaun auzapezak erantzun dio erdia emanen zaiela, Herriko Etxeak elektrizitatea pagatu behar duelako, baina helburua ez dela sosa irabaztea haien bizkar, eta ikusle guti balitz, sos guzia emanen zaiela.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

- irabazi erakundearen sortzearentzat: aho batez onartua.
- prezioarentzat: Pantxo Michelena jaunak ez du bozkatu.

16 – ARTZAMENDI HBHS-SIVU: Zuraideko Herriko Etxearen ateratzea

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2015eko apirilaren 1eko erabakiaren ondorioz, Zuraideko Herriko Kontseiluak HBHS ARTZAMENDItik ateratzeko xedea erakutsi duela.

Jakinarazi du Zuraideko auzapeza eta HBHsko lehendakaria zenbaitetan bildu ondoan, ateratzeko baldintzak ondoko hauek izanen zirela finkatu dutela:

- 2016ko urtarrilaren 1etik goiti aterako dela,
- Zuraideko Herriko Etxeari ez zaiola kalte-ordainik galdeginen.

Prozedura aldetik, Sindikatu Batzordeak du erabakitzen herri bat HBHStik ateratzea. Ondotik Batzordearen deliberoa Herriko Etxeei jakinarazten da eta hauek hiru hilabete dituzte deliberoa ukanez geroztik ateratze horri buruz beren iritzia emateko. Deliberorik ez bada ematen epe horretan, erabakia ontzat ematen da. Azkenik, prefetura erabaki batek onartzen du herria HBHStik ateratzea.

Zehaztu du 2015eko maiatzaren 21eko erabakiaren kariatara, ARTZAMENDI HBHsko Sindikatu Batzordeak ontzat eman duela Zuraideko herria atera dadin. Zuraideko Herriko Etxeari ez zaio ordainsaririk galdeginen, hori, HBHsko bilkuran ziren herriko etxeetako ordezkariak aho batez onarturik.

Ondorioz, jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio ateratze horri buruz haren iritzia ematea, gorago aipatu baldintzetan.

Aho batez onartua.

17 – Estatuaren emaitzen apaltzea: mozioa

Jaun auzapezak oroitarazi du Estatuaren emaitzak beheititu direla (11 miloi euro 2017a arte). Estatuak gibel egin du eta lurralde elkargoei galdegin die herri finantzen suspertze ahaleginean parte hartzea. Baina manera zorrotzean egiten du, eta arazoa da eskualdeentzat, departamenduentzat eta herriko etxeentzat. Frantziako Auzapezen Elkarteko bulegoak erabaki du negoziaketa batzuk abiatzea Estatuarekin eta elkargoei bi gauza galdetu ditu: mozio bat onartzea Estatuaren beheititze horien salatzeko; Frantzia mailako egun nazionala egitea 2015eko irailaren 19an, larunbatarekin, Frantzia eta itsasoz haraindiko departamenduetako herri eta herriarte guzietan.

Jaun auzapezak mozioa irakurri du.

Nathalie Aïcaguerre andereak galdegin du jaun auzapeza Frantziako Auzapezen Elkarteko kide ote den.

Jaun auzapezak baietz erantzun dio.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

18 – Aduanak: mozioa

Jaun auzapezak jakinarazi du Herriko Kontseiluari Aduanetako Eskualdeko Zuzendaritza berekin sartu zela harremanetan seinatzeko Kanboko aduanetako zainketa brigada berregituratzea eta hestea pentsatua duela Estatuak. Kanboko zerbitzuak Baionako Zuzendaritza Nagusira mugituko dira.

Aduanak egoitza atxikiko du aduanen bizitegi gisa; administrazio-erakinean beharbada bizitegiak egingen dira.

Nathalie Aicaguerre andereak erran du Kontrabandisten Etxea egin litekeela bertan.

Jaun auzapezak haren proposamena onartu du eta bikaina iruditu zaio Henri Delhiart frantses aduanetan berean aipatzea.

Jaun auzapezak mozioa irakurri du.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du noizbait beste zerbitzu publiko bat desagertzen balitz Kanbotik, Herriko Etxeak berriz ere mozio bat bozkatuko ote duen.

Jaun auzapezak erantzun dio baietz, mozio bera bozkatuko dela.

Pantxo Michelena jaunak jakinarazi du abertzale gisa, kontsideratzen duela mugarik ez dela, eta zehaztu du denak beren bizia horrelako pertsonengandik ahal bezain urrun egotera entseatzen ziren familietakoak direla. Nahiago du gai hori ez bozkatu.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Gehiengoaren bidez bozkatua.

Christian Deveze, Peio Etchelecu eta Pantxo Michelena jaunek ez dute bozkatu.

19 – Auzapezaren erabakien komunikazioa

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, baita ere 2014ko apirilaren 7ko Herriko Kontseiluaren deliberamenduaren arabera, komunikatzen da:

1) lehenasunez erosteko eskubide urbanoari dagokion ezezko erabakiak, 2015eko maiatzaren 21etik uztailaren 9ra:

- Lursailak: 1
- Etxeak: 2
- Apartamentuak: 7
- Garajea: 1
- Parte sozialak: 1

2) hilerrian kontzesioen emate eta berriz hartzei buruzko 2015eko maiatzaren 21etik uztailaren 9ko erabakiak:

- Kontzesioen erostea 15 urterako: 3
- Kontzesioen erostea 30 urterako (+ hilobia): 0
- Kontzesioen erostea 30 urterako (+ kolunbarioak): 0
- Kontzesioen berritzea 15 urterako: 0
- Kontzesioen berritzea 30 urterako (hilobiak): 0
- Urririk diren lursailen berriz hartzea: 0

Nathalie Aicaguerre andereak galdegin du zein den aipatzen den lursaila.

Jaun auzapezak erantzun dio Pascale Ihidope anderearen lursaila zela.

Nathalie Aicaguerre andereak galdegin du Zavaleta jaunaren lursaila ote den;

Jaun auzapezak erantzun dio Zavaleta jaunaren emaztearen lursaila dela.

Carmen Gonzalez andereak galdegin du zer diren parte sozialak.

Jaun auzapezak erantzun du Espainiako karrikan kokatua den Higiezinaren Sozietate Zibil bateko parte sozialak direla.

20 – Gai ezberdinak.

- Philippe Bacardatz jaunak gonbita ukan du Kanboko bestetako, agorrilaren 9ko, eta galdegin du Herriko Etxeak zein heinetan parte hartzen duen euskal kirolen finalaren antolaketan.

Didier Irastorza jaunak zehaztu du baldintza agiria Euskal Pilotaren Frantses Federazioak eman zuela. Herriko Etxeak ardura zenbait ditu: bazkaria, euskal pilotaren inguruan eginen den artisauen erakusketa iraganen den karparen alokatzea, arratseko aperitifa pilotarientzat eta taldeetako zuzendarientzat. Partzuer pribatuei eta erakundeei mahaiak saltzen dituen federazioa da arduratzen bazkariaren antolatzeaz.

- Philippe Bacardatz jaunak jakin nahi du zertan diren Arnaga argiztatzeko obrak, eta galdegin du Obren Batzordeak ikusten ahal duen nola argitan ezarriko den.

Jaun auzapezak erantzun dio obrak uztailearen 10ean bukatuak behar litezkeela. Entsegu bat egin da baina sistema ez da behar bezala ibili. Epea luzatzea onartu da. Laster Arnaga argitan ezartzeko egiaztatze gualdi bat eginen da. Obren bukaera bestan, Obren Batzordea gonbidatua izanen da. Oroitarazi du obrak egin dituen sozietateak elkargoko hiru langile formatu dituela argiztatzeak egiteko gisan.

- Philippe Bacardatz jaunak galdegin du zertan den Herriko Etxeko kazeta.

Jean-Jacques Lassus jaunak erantzun dio batzordekide gisa, programazio horretan parte hartu duela berak ere. Artikuluak prest izan behar ziren maiatza bukaerako, hein batean inprimatzeko gisan eta ekaina bukaeran banatzeko gisan. Oposizioaren artikulua ekainaren 18an baizik ez da igorria izan, beraz uda izanez geroz, beranta hartu da. Inprimatzeko prest izanen den alea heldu den asteazkenean etorri behar liteke, beraz agorrila hastapenean banatuko liteke.

Philippe Bacardatz jaunak ulertzen du oposizioaren artikulua 18 egunez berandutu duela konposizioa, baina azken aldi artikulua irailean emana izan zen eta abenduan baizik ez zen inprimatu. Uste zuen artikulua ekainaren 18an emanez, iraileko prest izanen zela.

- Pantxo Michelena jaunak ohartarazi du bilkura bat iragan zela Herriko Etxean aitzineko astean, eraikin publikoetan sartzeko erraztasunari buruz. Bilkura horretara kontu-ikuskatzea egiten duen Hirigintza, Obra eta Sartzeko erraztasunari buruzko Batzordea gomitatzen zen. Sartzeko erraztasunari buruzko Batzordeko elbarritu bakarra ez zen etorri. Biziki jenagarri da elbarritasunari buruz hitz egitea elbarritua den pertsona batek ez duelarik bere lekukotasuna ematen.

Jaun auzapezak zehaztu du bilkura horren helburua zela kontu-ikuskatzea egin duen bulegoak atera duen diagnostikoa aurkeztea. Beharko zitekeen kontu-ikuskatzea egin duen pertsona, pertsona elbarritu batek laguntzea. Hor eskuduntza duen bulegoak egin lan teknikoa da, jakinarazteko nola arauak segitu.

Pantxo Michelena jaunak gehitu du gauza bera litekeela laborantzari buruzko bilkura egitea laboraririk gabe edo pastizeriari buruz, pastizagile gabe. Sinesgarri ote liteke?

Jaun auzapezak erantzun dio kanpotik datorren organismoa dela; denak gomit dira, jendea ez badaiteke etor, ez dira bilkurak geldi-geldia gibelatzen ahal. Epeak errespetatu behar dira, Ad'APEko administrazio dosierra aurkeztu behar da iraila bukaerako.

Henri Saint Jean jaunak iradoki du denek beharko lituzketela errotadun aulkiak hartu, belarriak eta begiak tapatu, eta Publikoa Errezibitzen duten Erakundeen itzulia egin elbarrituek egunero dituzten arazoak ulertzeko.

Jaun auzapezak arrazoia eman dio eta galdegin dio horren antolatzea larunbat goiz batez.

- Pantxo Michelena jakinarazi du Jean Rumeau etorbideko bizitzaile talde bat oposizioko taldearekin harremanetan sartu zela joan den ekainaren 19an zuhaitz bat erori baitzen. Istripu horrek teilatu bat anitz funditu du baita ere aldamiu bat, auto bat (auto-botalekura igorri dena), eta elektrika hari batzuk moztuak izan dira. Ez da lehen aldia holako istripu bat gertatzen dela, gutienez hirugarren zuhaitza da erortzen dela. Haritz gorriak dira, eri omen direnak. Zuhaitz horiek zaharrak eta handiak direnez, beren erroek ez dituzte gehiago zutik atxikitzen eta erortzen dira. Gainera egun hartan ez zen haizerik. Karrika horretan bizi diren 7 biztanleak kezkatuak dira, zuhaitz bat erortzeko mehatxupean dira, haiek, baita ere hortik pasatzen den edonor (oinezko edo auto-gidari). Biztanle horiek Toki Eder etxearekin sartu dira harremanetan, haiek baitira zuhaitzen jabeak, eta Herriko Etxeari gutuna igorri dute. Mementoan ez dute egoera hobetuko zela erraten zuen erantzunik ukan.

Jaun auzapezak zehaztu du denak ados zirela onartzeko gertatu zena. Horrelako goratasuneko eta pisuko zuhaitza oinezko batzuen gainean eror zitekeen, ondorio lazgarriekin.

Bi egun berantago, karrikako bizitzaile batek deitu du jakinaraziz bizitzaile guziak kezkatuak direla beren eta beren etxeen segurtasunarentzat.

Bizitzaileen bi gutun ere errezibitu ditu gauza bera errateko.

Toki Eder etxeko zuzendariarekin harremanetan sartu da eta Toki Eder elkarteko lehendakariari idatzi dio, hau baita lekuaren jabea, eta atxikirik igorri dizkio gutuna eta bizitzaileen petizioa.

Petizioa izenpetu dutenei ere idatzi die, abiatu desmarta jakinarazteko: behartu du jabea aditu bat jinaraztea zuhaitzen egoera estimatzeko. Zuhaitz horiek oihan gune sailkatuan dira, eta arrazoi bat behar da horien kentzeko. Zuhaitz horiek lanjerosak badira, xedarratuko edo kenduko dira. Zehaztu du gutun horiek ikus daitezkeela Osagarriaren Zuzendaritza Nagusian.

Aitzineko astean lehendakariordearen e-mail bat errezibitu du: diagnostiko bat galdegina izan da Oihanen Erakunde Nazionalari (Estatuaren zerbitzu publikoa).

Jaun auzapezak aipatu du eginbeharrak zituela herriko polizia gisa, segurtasun publikoarentzat, eta arrisku bat badela dakien ber, seriooki jokatu behar duela.

Pantxo Michelena jaunak galdegin du diagnostiko hori noizko egina izanen den.

Jaun auzapezak erantzun dio galdegin zuela ahal bezain fite egina izan zedin.

Jaun auzapezak Herriko Kontseilua bukatutzat eman du bakantza onak eta Kanboko besta goxoak desiratuz denei.

Bilkura 23:05ean bururatu da